

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 179/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan natura mugak eta bestelako muga zehatzak dituzten nekazaritza ustiatzeari zuzendutako laguntzen 2021erako deialdiari, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren esparruan

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoan muga naturalak edo espezifikoak dituzten zonetako nekazaritza ustiatzeari zuzendutako laguntzen oinarri arautzaileei, zeinak 13.1N "Mendialdeetako konpentsazio ordainketak" eta 13.2N "Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko alde behartsuei zuzendutako konpentsazio ordainketak" gisa identifikatuta baitaude Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan, 1305/2013 Erregelamenduan ezarritako mugen barruan; halaber, laguntza lerro horren 2016ko deialdia ere onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 14ko 13/2017 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egin zen laguntza horien oinarri arautzaileen zati bat, eta laguntza lerro horren 2017rako deialdia onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 20ko 9/2018 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egin ziren oinarri arautzaileak, Euskal Autonomia Erkidegoko LGPren aldaketara egokitzeko, eta laguntza horien 2018rako deialdia onetsi zen.

Martxoaren 21eko 15/2019 Foru Dekretuaren bidez, berriz aldatu ziren oinarri arautzaileak, eta 2019rako deialdia argitaratu zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 24ko 10/2020 Foru Dekretuaren bidez, zenbait aldaketa aplikatu ziren oinarri arautzaileetan, eta 2020rako deialdia argitaratu zen.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 23ko 2020/2220 (EB) Erregelamenduaren bidez, xedapen iragankor jakin batzuk ezarri ziren Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) eta Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (FEAGA) 2021 eta 2022ko laguntzetarako, eta aldatu egin ziren NPB laguntzak arautzen dituzten (EB) erregelamenduak, besteak beste 1305/2013 Erregelamendua, laguntzak emateari segurtasuna eta jarraitutasuna emateko eta trantsizio aldiaren landa garapenera ematen zaion laguntzaren jarraipena bermatzeko, gaur egungo esparru juridikoa NPB berria indarrean sartu arte zabalduz. Hortaz, LGENFek 2015-2020 aldiaren finantzatutako programak 2022ko abenduaren 31ra arte luzatuko dira.

Bestalde, Kontseiluaren abenduaren 14ko 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, "EURI" izenekoak, Europar Batasuna suspertzeko tresna bat ezartzen du, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko. Finantza tresna horrek zenbait neurri hartzen ditu barnean, COVID-19aren ondorio ekonomiko gogorrei aurre egiteko edo berehalako finantzaketa beharrik betetzeko, krisi horrek beste krisialdirik ekar ez dezan; besteak beste, COVID-19aren krisiak nekazaritzan eta landa garapenean izan duen inpaktuari aurre egiteko neurriak.

Aipatutako 2020/2220 (EB) Erregelamenduak, trantsizio aldirako LGENF funts gehigarriak (2021 eta 2022. urteetakoak) sartzeaz gain, aukera ematen du EURI funtseko baliabideak erabiltzeko ere, nekazaritza sektorea eta landa zonak suspertzeko landa garapeneko programen barruan, baina baldintza jakin batzuekin, eta EURI tresnaren xedearekin bat datozen laguntza neurri eta eragiketa zehatz batzuetarako. Hain zuzen, tresna horren xedea da ekonomiaren

suspertze erresiliente, jasangarri eta digitala lortzea, bat etorri Europar Batasunak ingurumenaren eta klimaren arloan hartutako konpromisoen helburuekin eta Europako Itun Berdean ezarritako asmo berriekin.

Foru dekretu honetan aipatutako neurriak honako hauei buruzkoak dira: mendi nekazaritzako guneetako berezko zailtasunak konpentsatzera bideratutako laguntzak (13.1N neurria) eta natura muga nabarmenak dituzten beste gune batzuetako berezko zailtasunak konpentsatzera bideratutako laguntzak (13.2N neurria). 2020/2220 (EB) Erregelamenduan xedatzen da neurri hori EURI funtsaren bidez finantza daitekeela, 1305/2013 Erregelamenduak 59.6 artikuluan jasotzen baitu.

Oinarri arauen 12.1. artikulua xedatzen du urtero laguntzen deialdia onetsiko dela, eta haren barruan honako hauek jasoko direla:

- Zein laguntza lerrotarako egiten den deialdia.
- Deialdia ebatzeko erreserbatzen diren kredituak.
- Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

Arabako Foru Aldundiaren 2021erako gastuen aurrekontuan bada partida bat, 40.1.01.42.01.479.00.04 "Alde behartsuentzako konpentsaziozko kalteordainak" izenekoa, eta saldo nahikoa dauka. Hortaz, proposatzen da onestea laguntza horien 2021erako deialdia.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea dirulaguntza horien 2021erako deialdia, honako ezaugarri hauekin:

- Deialdiko laguntza lerroa:
 - Mendialdeetako konpentsazio ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren 13.1. N neurria).
 - Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko alde behartsuei zuzendutako konpentsazio ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren 13.2. N neurria).

– Epea eta lekua. Deialdi honetan xedaturiko laguntzak jasotzeko eskaerak arau hauetan xedaturiko "eskaera bakarrean" egongo dira: abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren II. tituluko II. kapituluaren eta otsailaren 16ko 20/2016 Dekretuaren 34. artikuluan (dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek garatu eta aplikatzeko da: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) zuzeneko laguntzen erregimenak, Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC) eta laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak).

Nolanahi ere, aintzat hartuko dira eta baliozkoak izango dira 2021eko otsailaren 1etik aurreko paragrafoan aipatutako eskaera bakarra aurkezteko epea amaitu arte xede horrekin aurkeztutako laguntza eskaerak.

Eskaera bakarra aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe denbora berdinez luzatuko da laguntza lerro hauek jasotzeko eskaerak aurkezteko epea.

Eskaera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko eskualdeko nekazaritza bulegoetatik edozeinetan aurkeztuko da, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 16.4 artikuluan (urriaren 1eko 39/2015 Legea).

– Kreditu erreserba. 1.485.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastuen aurrekontuko 40.1.01.42.01.479.00.04 "Alde behartsuentzako konpentsaziozko kalteordainak" partidaren kontura.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek neurri bakoitzean hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko ehunekoak izan daitezke gehienez ere.

— Finantzaketa: deialdi honetako laguntzetara bideratuko diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituetatik etorriko dira, eta Europako LGENF eta EURI funtsen bidez ere finantzatu ahal dira, Europako Batzordeak onetsitako eta deialdi honen garapenean aplikatzekoa den Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan jasotzen diren finantzaketa ehunekoaren arabera, Landa Garapenerako Programa horretan aurreikusitako zuzkidura agortu arte. LGENF funtsak kofinantzatutako eragiketarako kofinantzaketa tasa ehuneko 75 izango da, eta EURI funtsak kofinantzatutako eragiketarako kofinantzaketa tasa, ehuneko 100.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE